



# AZOKA




## 'Gregorio katarrino'

Gregorio mutil kozkorrak ispiluan bere burua tximino katarrino bihurturik ikusiko du. Hor hasiko da abenturaz beteriko bidaia: tximinoaren lekua hartuko du Gregoriok, eta, Alizia bezala, ispiluaz bestalde dagoen herrialde miresgarri batera joango da. Era berean, katarrinoak Gregorioren lekua hartuko du, eta haren tximinokeriek inguruko guztiak, etxekoak, eskolakoak nahiz lagunartekoak, asaldatuko dituzte, ia erotzeraino.

**Kuan Kruz Igerabide eta Eider Eibar**
Argitaletxea: **Elkar**




## 'Zenbakiak'

Izenburuak dioen moduan, liburu honen bidez, haurrek seira arte zenbatzen ikasi ahal izango dute, modu atsegin eta dibertigarrian. Horretarako, irudi koloretsuak eta birak ematen dituen diskoak izango dituzte bidelagun irakurleek. Zenbakiak ez ezik, haiek kontatzen ikasteko eta animalien izenak ezagutzeko ere baliagarria da liburua. Horrela, ondo pasatuz matematikan barneratuko dira haurrak.

**Pavla Hanackova eta Julie Cossette**
Argitaletxea: **Ibaizabal**